

**2016KO URTARRILAREN 7AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Zazpia.

HILABETEA: Urtarrila.

URTEA: Bi mila eta hamasei

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: AITOR ALDASORO ITURBE

BILDUAK:

EAJ-PNV udal taldekoak:

LEIRE ARTOLA UGALDE
MALU VALLES FERNANDEZ
XABIER MATARRANZ RICO
EDORTA DIAZ DEL RIO
IRMA ARNAIZ GUILLEN
ENKARNI ARRIETA TELLERIA
JON OLANO ARRESE
ELENA RUIZ ZABALA

Beasaingo EH BILDU udal taldekoak

KOLDO AGIRRE MUJICA
GARBIÑE ZURUTUZA FERNANDEZ
AITOR LARBURU IZAGUIRRE
MIREN AMAIA BARANDIARAN VELEZ DE MENDIZABAL
AITOR MARTIN URTEAGA OSINALDE
ZEZILIA HERRADOR GARIN

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldekoak:

SANTIAGO URDAMPILLETA DOS SANTOS
ANGEL REDONDO FERNANDEZ

IDAZKARIA: ITZIAR AROSTEGI APAOLAZA

Bilera honetan LURDES ALEGRIA LASA, kontuhartzaileak, ere parte hartzen du.

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Gai-zerrendarekin hasi baino lehen, eskerrak eman zinegotzi guztioi gaur hemen egoteko egin duzuen esfortzuagatik.”

1.- AURREKO AKTA. 2015eko azaroaren 26ko akta onartzeko proposamena.

2015eko azaroaren 26ko aktaren berri eman ondoren, ezagutzera eman da 6. puntuan, ondorengo esaten duen tokian: “Santi Urdampilleta (Beasaingo EH BILDU)...”, “Santi Urdampilleta (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)...”, esan behar duela. Hori aldatzeko eskatu da eta aho batez onartu da.

2.- AURREKONTUA. 2016. urterako aurrekontu orokorra onartzea.

Alkate jaunak (EAJ-PNV) proposamenaren eta aurrekontua onartzeko jarraitu behar den prozeduraren berri eman du, hau da:

Prozedura:

“1.- Alkateak Aurrekontu Proiektuaren azalpena egiten du.

2.- Eztabaidatzeko eta bozkatzeko prozedura azaltzen du, hau da:

- Emendakinak aurkezteko momentua, eztabaidatzen hasi aurretik dela adierazten du. Emendakinak idatziz aurkeztu beharko dira.
- Hitz egiteko txanda ematen du emendakinak aurkezteko, ordezkaritza gutxiena duen taldeari hitza emanez.
- Taldeei hitza ematen zaie, aurkeztutako emendakinen eta Alkateak aurkeztutako aurrekontu proiektuaren gainean beraien iritzia emateko.
- Norbaitek Aurrekontuarekiko emendakin osoa aurkezten badu, bozkatu egingo da eta onartuko balitz, Aurrekontua Alkateari itzuli beharko litzaioke, taldeekin adosteko eta beste Aurrekontu Proiektu berri bat aurkezteko.
- Emendakinak banan-banan bozkutzen dira.

- Onartzen badira, Aurrekontu Proiektuan aurreikusiko dira. Ez badira onartzen, ez.
- Bigarren aldiz, hitz egiteko txanda ematen da.
- Alkateak aurkeztutako Aurrekontu Proiektua, onartutako emendakinak aurreikusiz bozkatzen da.

3.- Alkateak bozketaren emaitza azaltzen du eta adierazten du, Aurrekontuari hasierako onespena eman zaiola eta 15 eguneko epean jendaurrean jarriko dela, erreklamazioak aurkezteko.

4.- Erreklamazioak aurkezten ez badira, behin betiko onartura geratuko da eta indarrean sartu ahal izateko, kapituluka Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.”

Proposamena:

“Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko, abenduaren 19ko, 21/2003 Foru Arauaren 14.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, Alkatetza honek 2016 urterako Aurrekontu Orokorra osatu du. Hori dela eta, Kontuhartzaitzaren txostenak egin ondoren, Udalbatzaren onespenerako aurkezten da ondorengo akordio proposamena:

Lehenik.- 2016 urterako Aurrekontu Orokorren espediente onartzea:

- Udalaren	aurrekontu	propioa:
		15.387.821,00 €
Presupuesto propio del Ayuntamiento		
- Fundazioa: Udal Kirolaren Erakundeko aurrekontua:		670.227,60 €
Presupuesto Fundación: Instituto Municipal del Deporte		
- Beasaingo Loinatz Musika Eskolako aurrekontua:		637.601,86 €
Presupuesto Beasaingo Loinatz Musika Eskola		
- Beasaingo Udal Euskaltegiko aurrekontua:		427.983,00 €
Presupuesto Beasaingo Udal Euskaltegia		
- Aurrekontu Bateratua		15.944.181,56 €
Presupuesto Consolidado		
- Aurrekontua Gauzatzeko Udal Araua		
Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria		

Bigarren.- 15 egun Jendaurrean jartzea eta epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada behin-betirako onartutzat emango da. Bestela, Udalbatzak hilabeteko epea izango du dagokiona ebazteko.”

Jarraian Alkate jaunak ondorengoa dio: “Zorpetzea dela eta 4,2 milioiko zorpetzearekin hasiko dugu urtea eta 3,7 milioirekin amaitzea espero da. Esan behar da diru sarrera arruntak gastu arruntak gainditzen dituztela eta zorraren amortizazioa aintzakotzat hartuta, 1.735.471,81 €ko aurrezki garbia azaltzen du Udalak. Sarrera eta gastuei dagokionez, sarreretan 2015eko aurrekontuko likidazioaren estimazioarekiko zabor bilketaren tasaren aldaketan egongo da diferentziarik nabarmenena. Gastuei dagokienez, I kapituluari 2012. ekitaldiari eta 2013. ekitaldiari dagokien elkarkidetzako kuoten %50a Udalak atzeratuta zuena onartu da eta ordaindu egingo da. Soldatetan %1eko igoera izango dute langileek. Eusko Jaurlaritzak duen enplegu planaz gain, udal enplegu planari emango zaio lehentasuna aurrekontu hauetan. Bizikidetzaren eta memoria lanketak ere izango du bere partida, Alzhéimer aurre-diagnosi programa era martxan jarriko dugu eta Beasain lagunkoia sustraieratik onartu genuen programa ere martxan jarri da eta diru partida bat bideratu dugu aurrera eramanez ahal izateko. Kulturen ere azpimarratzekoak, dantza.eus elkartearekin hitzartzeko dagoen partida eta asmoa, izan ere, aurre lanak burututa ditugu eta datorren hilabetean emango dugu hitzarmen horren berri. Esan, hitzarmenak bi puntu jasoko dituela. Legegintzaldiko hitzarmena izango da, hau da, lau urtekoa eta bertan dantza maisuentzat bi ikastaro urteko antolatuko dira eta dantza tradizionalaren egonkortzea eta erreferentziaren bila ere jardungo da proiektuaren ardatza. Musikan ere jarriko ditugu begiak. Urtean behin beka bat martxan jartzeko asmoa dugu eta emanaldiak ere urte osoan zehar ipar jakin batekin antolatzeko asmoa dela eta, arlo horrek bultzada bat izango du aurrekontu hauetan. Merkataritzari begira, biziberritze plana egingo da eta baita ere hutsik dauden lokal eta guneak berpizteko helburua duen proiektu bat ere enkargatuko da. Inbertsioak direla eta, kiroldegian gela berri bat egokituko da, bertan CrossFit eta antzeko eskaintzak eskaini ahal izateko. Horrez gain bonberia eraikinean proiektu bat ate-joka dugu eta horri ere begiak jarriko dizkiogu. Nekolalde eta Zazpiburrieta kaleen berritzea ere, aurrera ematea espero dugu. Lehengo urtetik dagoen baratza sozialen kontu-sailarekiko lurra eta proiektua martxan jarriko dira. Horrezaz gain Plan Orokorrearekin ere jarraitzeko asmoa dago eta horretarako arkitektoen kontratazio publikoa egiteko asmoa dago eta diru partida bat jarri da. Energia aurrezteko diru partida ere jarrita zegoen eta BILDU alderdiak egindako ekarpenari esker kreditu hori igo egingo da 50.000 €tara. Gainontzeko alderdien ekarpenetan azpimarratzekoak, irisgarritasun plana garatzen joateko 50.000 €ko partida bat aurreikusten da, zinean ere larrialdi plana gauzatzeko eta bertako egoera hobetzeko azterketa egiteko diru partida bat jarri da. Usurbe zinearen egokitzapenaren azterketa 2016an egitea ekarpen modura EH BILDUK proposatu du eta hala onartu da eta aurreikusi da. Euskara bultzatzeko sentsibilizazio kanpainak egiteko 12.000 € aurreikusi dira eta kultur elkarte modura, Udalbiltzarako ere 11.000 € aurreikusi dira. Horiek izan dira EH BILDUn kontuan hartu ditugun ekarpenak. Bestalde esan alderdi sozialistak egindakoetatik pantaila akustikoena aintzakotzat

hartuko dela. Lur erosketa bat gauzatuko dela eta ikastetxe batean egin beharreko asfaltatze lanak ere onartu ditugula.”

Alkate jaunak hitz egiteko edo emendakinak aurkezteko txanda eman du:

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Los socialistas vascos somos un partido longevo, un partido que de un modo u otro siempre ha estado presente en la vida municipal de la villa, y que además ha estado al servicio tanto de los beasaindarras de nacimiento como de los beasaindarras de adopción. Siempre nos hemos sentido comprometidos en cuerpo y alma con que Beasain tuviera unos presupuestos dirigidos a todas las demandas de sus ciudadanos, pero los presupuestos presentados por el equipo de gobierno nos parecen todo lo contrario. De igual manera, el interés demostrado con negociar con nosotros ha sido irrisorio, inexistente prácticamente. Se han pasado por el arco de triunfo partidas ya aprobadas y adjudicadas, como por ejemplo el ascensor del barrio de la portería, habiendo sido éste fruto de un proceso de participación, que los vecinos eligieron ejerciendo su derecho al voto, argumentando que es imposible ejecutar cuando únicamente hay un simple informe desfavorable. Somos plenamente conscientes de que el Sr. Alcalde y su equipo de gobierno, no han presentado nunca la más mínima intención de ejecutar dicho proyecto ni cuando han estado en la oposición ni durante el breve tiempo de su mandato. Además partidas destinadas tanto a Udalbide como a Udalbiltza, creemos que no tienen ningún beneficio de cara al municipio y que los importes dirigidos a dichas partidas se podrían haber reorientado, por ejemplo, para reducir el importe que cada ciudadano debe aportar para reducir el importe de Sasieta. Además seguimos inquietos ante la negatividad del equipo de gobierno de mostrar la información en los paneles electrónicos en bilingüe, siendo plenamente conscientes de que una buena parte de la ciudadanía así lo está demandando. De igual modo nos parece que el margen de tiempo para estudiar los presupuestos ha sido mínimo. Nos hemos enterado por la prensa de que proyectos como el edificio de la antigua bombería podría ser una sala de exposiciones, cuando el proyecto inicialmente iba a ser otro. También queremos mencionar que la única vez que se ha cumplido con las aportaciones del grupo socialista, no ha sido precisamente estando el PNV en el equipo de gobierno, ya que nunca ha terminado de cumplir con su palabra en lo que a los presupuestos se refiere. No así, el anterior equipo de gobierno que salvo la obra del ascensor del Paseo del Oria, cumplió con todo lo pactado, a excepción de ésta, siendo torpedeada y eliminada por el actual equipo de gobierno, que está llevando a cabo una política de rodillo y oscurantista. Es por todo ello que el grupo socialista de Beasain, va a votar en contra de estos presupuestos.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Santik esan du borondaterik ez dugula beste alderdiekin negoziatzeko, baina beste alderdiarekin bezala irailean hasi ginen bilerak egiten aurrekontuen inguruan zuen ekarpenak jasotzeko eta gure

proposamenak emateko. Azaroan uste dut laugarren bilera zela eta oraindik ere korreoz bidali behar izan genituen gure ekarpen guztiak, eskuak poltsikoan zituzula azaldu zinelako. Egia da guk Porterriako igogailua ez dugula ikusi, baina horren arrazoiak..., gerora sartu garenean eta ez guk, teknikoei (udalekoak eta Ur Kontsultazioarenak) lehendabizi beraiei txostenetan jasotzen dutelako arrazoiak zein den. Zuen Porterria auzorako 120.000 € horiek, datorren urtean ere auzotarrei eskainiko zaie. Zuek gidatu nahi baduzue aurreko legegintzaldian egindako proposamena gidatu dezakezue. Guk onartuko ez duguna da, teknikoen aurkako txostenen aintzakotzat hartu gabeko proiekturik. Hori izan da arrazoiak, alde edo aurka egon.

Udalbide eta Udalbiltza aipatzen dituzu. Udal honetan bertan onartu zenuten, edo ezer ez zenuten esan behintzat, euskara hizkuntza gutxitua dela eta Udalbatza honek hori garbi erakusten digu. Hemen elebidun bakarrak nortzuk garen garbi ikusi bait daiteke. Orduan onartu zen, euskara hizkuntza gutxitua zela eta ekarpenak eta jarrerak azaldu egin behar zirela. Nik ez dut zalantzan jartzen panelak bi hizkuntzetan egon behar dutenik, helburua komunikatzea delako, nahiz eta euskarak bere tokia behar izan. Urteetan partida bat proposatu dugu Udalbiderako (Udalbiltza EH BILDUk egindako ekarpena da), iruditzen zaigulako zazpi herrialdeen ikuspegia duela, guk ulertzen dugun Euskal Herriarena, hain zuzen ere, eta alde honetatik tokia egiten diogu, hau da, diruz laguntzen dituzten elkarte kulturalerik diru-laguntza gutxi bada ere, gure ahaltxoa jartzeko ahalgina egin du Udal honek 2003. urtetik, oker ez banago. Guk bultzatuko dugu horrela egitea. "Rodilloa" aplikatzen dugula esaten duzu. Guk hasieratik esan dugu eta baita ere alderdi sozialistari zentzuzkoak iruditzen zaizkigun ekarpenak aintzakotzat hartuko ditugula. Horrela iruditzen zaigu, bai lur erosketa, asfaltatze lanak edo pantaila akustikoena, nahiz eta lanketa bat eskatu eta ez egiten diren ekarpenak inolako baliorik eta zorrotasunik gabe. Espero dugu, guk behintzat, bide berdinetik jarraitzea."

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU): "Guk ez daukagu emendakinik aurkezteko asmorik, baina gure arrazoiak azaldu nahiko genituzke. Aitorrek aipatu ditu guk egindako ekarpenak zeintzuk izan diren, bai urte honetan egiteko eta ondoren aztertu eta exekutatzeko, hala nola, zinearen kasua, Dolarea parkea edo 2016. urtean aztertu eta erabaki hurrengo urtean zein egin daitekeen azaltzeko. Onartutakoak eskertu egin nahi genituzke. Azpimarratu nahiko genuke beste zenbait emendakin ez direla onartu eta hori ikusten dugu kudeaketa publiko eta pribatuaren arteko ezberdintasuna: Igartzako kudeaketa, asko entzuten dugun arkitektoaren kontratazioa... Uste dugu ikuspuntu ezberdin nabarmenak ditugula kontu horretan. Kudeaketa publikoa edo pribatua. Guk publikoaren alde egin nahi izan dugun bitartean, kontrakoa jaso eta gestio pribaturantz eraman ditu aurrekontu honek zenbait puntu. Hala ere esan behar dugu aurrekontuaren zenbaki orokorrak ez ditugula gaizki ikusten eta ez dagoela aldaketa nabarmenik aurreko aurrekontuekiko.

Plantila eta dedikazioen inguruan ondoren azalduko ditugu, baina horiekin ez gaude ados. Horrezaz gain eta alderdi sozialistarekin bat eginez, atzera pauso bat ikusten dugu. Gehiengo absolutua duzue eta hori aurrera eramaten duzue, bai batzordeetan eta baita ere komunikabideetan. Guri behin baino gehiagotan pasatu zaigu, zer egin behar den herrian edo nola egin nahi den, komunikabidetatik enteratzea. Horregatik guk aurkako botoa emango dugu. Nahiko genuke hau aldatzea eta zenbait batzordeetan ere salatu dugu informazioa ez dela ematen. Ez dakit ezkutatu nahi den edo zein arrazoiengatik ez zaigun iristen, baina uste duguna da proposamenak, proiektuak batzordeetan lantzeko direla. Bestalde esan, aurrekontuak herritarrekin gehiago lantzea gustatuko litzaigukeela. Aurreko legealdian bidea hasi genuen eta badakigu ez dela bide erraza eta urteak beharko direla hori indar gehiagorekin lantzeko, baina uste dugu ezer ez lantzea atzera pausoa dela.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Pribatutasuna aipatzen duzue eta adibide gisa Igartzako kudeaketa. Bi urte da azkeneko azpikontratazioa egin zena eta proposatzen duzue publikoa egitea, arkitektoarena ere publikoa egitea. Lau urte izan dituzue horretarako eta ez duzue egin ez duzue pausorik eman, justu kontrakoa. Kuriosoa da, Igartzako pleguak ikustea besterik ez dago, orain bi urtekoak diotena: “En este sentido el adjudicatario tendrá el carácter de empresario totalmente autónomo e independiente, plenamente responsable frente al Ayuntamiento como ante la Seguridad Social y ante la Administración Tributaria.”. Nik ez dakit zer aldatu den bi urteetan esateko publikotasunetik pribatura pasatu nahi dela esaten denean. Esaten da baita ere, informazioa ezkutatu egin nahi dela eta komunikabideei lehentasuna eman nahi zaiela. Ez da gutxiago ere hori gure asmoa. Onartzen ditugu egin ditzakegun akatsak, baina ez ezkutukerian ibiltzeak. Saiatu gara eta saiatzen jarraituko dugu egiten dugunari aurre egiteko eta batzordeak horretarako erabiltzeko. Bertan gaiak irakurri, tratatu eta bertan proposamenak egin eta ez ate horietatik kanpo ibili. Ez zaigu guru ere hori oso edukia iruditzen, baina baita ere uste dugu honetan, adibidearekin jokatu behar dela eta ez hitzekin bakarrik.”

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Guk azken 2 urtetan ez dugula egin esan duzu. Noski, ez dugu egin. Guk ez genituen 9 boto. Gu saiatu ginen eta urtero eraman dugu aurrekontuetara arkitekto plaza. Igartzako kudeaketarekin berdin. Nondik abiatu eta lehenengo momentutik esan zen, behin ikusita zein bide zuen horrek, horko kudeaketa publikoa izateko joango gienela. Berdin esan genuen zinearekin edo beste zenbait gaiekin izan litekeena. Alde nagusiena hor dago. Guk 7 boto genituen. Zuek orain 9 dituzue. Beraz, alde nabarmenena hor dago.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ-PNV)

Aurkako botoak: 8 (Beasaingo EH BILDU, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, 2016. urterako Aurrekontu Orokorra onartzeko proposamena, gehiengo absolutuarekin onartu da.

3.- PLANTILA ETA LANPOSTUEN ZERRENDIA. Beasaingo Udalaren eta Organismo Autonomoen plantila eta lanpostuen zerrenda onartzea, Euskaltegia izan ezik.

Alkatea jaunak (EAJ-PNV): “Komunikazio teknikari bat sartzea izan ezik, behin-behineko pertsonalei zuzendua dena, antzekotasun handia dute plaza eta lanpostu kopuruei dagokionez 2015. ekitaldi ekonomikorako eratu zirenekin eta proposatzen dena da Udalaren eta bere organismo autonomoen (Euskaltegia izan ezik), 2016. urterako pertsonal funtzionario, behin-behineko pertsonal eta pertsonal laboralaren plantilari, hasierako onespena ematea eta jendaurrean jartzea hamabost eguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz, alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik ez bada aurkezten, behin betiko onartua geratuko da eta Estatuko eta Erkidegoko Administrazioei plantilen kopiak bidaliko dira.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Koldo Agirre jaunak (EH BILDU): “Zuek komunikazioko izen horrekin jarri duzuenarekiko, izenetan gehiegi sartu gabe eta garbi utziz etxe honetako langile guztiekiko errespetua, guk uste dugu eta horrela esan zitzaigun Alkatearen konfiantzazko pertsona bat dela sartzen dena. Izena nahi dioguna jarri diezaiokegu, baina oker ez banago udal antolakuntzako teknikariak ere hori galdetzean, horrela zela esan zigun. Beraz, gutxienez datuak zer diren azaldu nahi genituzke eta hori egiten ez den bitartean, guk aurkako botoa emango dugu.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Hemen ere, argi azaldu dugu gure asmoa eta gure egitekoa zein den lanpostu honekin. Egia da guk 2011n Udala utzi genuenean komunikazioak ez zuela etorritakoan aurkitu dugun indarra. Udalean pisua du eta udalaren langileak edo lanean dihardutenei etekina ateratzea eta bertakoei konfiantza ematea, iruditzen zaigu ezinbestekoa dela. Alde horretatik, iruditu zaigu bertan dagoen komunikazio lana egiteko, batez ere barnea begira eta baita ere kanpora, bertako ezagutza ezinbestekoa dela eta asko lagunduko lukeela. Esan behar da konfiantza, ez teknikoa baizik eta politikoa, nahiz eta maiatzean hauteskundeak izan azaro-arte luzatua egon den zuen komunikazio esleipena izan dela. Gure kasuan konfiantzazkoa esaten bada ere, behin-behineko pertsonalari zuzendutakoa da eta noski konfiantza dago, baina konfiantza teknikoa konfiantza politikoaren gainetik dago. Ikusirik

hemendik bi urtetara komunikazio tresnekin hain zuzen ere lotuta dagoen lanpostua badagoela eta egun lanpostu hori betetzen duenak jubilatzeaz dagoela, plaza marraztu egin beharko da eta marrazketa horretan bi urte hauek ondo etorriko zaizkigu plaza horren oinarriak jartzeko.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 9 (EAJ-PNV)

Aurkako botoak: 8 (Beasaingo EH BILDU, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, Beasaingo Udalaren eta Organismo Autonomoen plantila eta lanpostuen zerrenda (Euskaltegia izan ezik) onartzeko proposamena, gehiengo absolutuarekin onartu da.

4.- DEDIKAZIO OSAGARRIAK. Euskara eta Kulturako koordinatzailea (Udala) eta Musika Eskolako zuzendari eta biolineko irakaslea.

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Dedikazio osagarriari dagokionean, oraindik daudenak mantenduko dira, hau da, aparejadorea (9.066,40 €/urtean), zerbitzuburuarena (9.066,40 €/urtean) eta udaltzain-buruarena (9.066,40 €/urtean) eta proposatzen diren berriak, euskara eta kulturako koordinatzailearena (4.187,83 €/urtean), eta Musika Eskolan dedikazio osagarria ezartzen da bi irakasle lanpostuetarako (3.583,34 €/urtean),. Zuzendaritza lana egiteagatik onartzen den kontzeptua aldatu egiten da, zuzendaritza osagarria izeneko kontzeptua sortuz.”

Koldo Agirre jaunak (EH BILDU): “Guk kasu honetan ere aurka bozkatuko dugu. Gure ustetan dedikazioarena atzera pausoa da. Langile hauei eskatzen ari zaiena da %100eko lanaldia egin ordez, %110eko lanaldia egitea eta 110eko soldata jasotzea. Uste dugu hiru pertsonei dedikazio bat eman ordez, egokiagoa litzatekeela pertsona bat gehiago kontratatzea. Ahoa betetzen zaigu esaten dugunean, langabezia dagoela eta ikastaroak antolatu eta etab. egin behar dela. Hori ondo dago, baina hiru pertsonek %10eko lan gehigarri bat egin ordez, uste dugu merezi duela eta gaizki ez banago horrelako dedikazioa jaso behar dutenek eskatuta, nahiago luketela pertsona bat aldamenean izan lanerako eta ez beraiei gehiago eskatu.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Dedikazioak direla eta nik bereizketa egingo nuke. Alde batetik euskarako eta kulturako koordinatzaileari dedikazioa ordaintzea proposatzen da, ez dedikazio gehiago izango duelako, baizik eta honekin onartzen dena da orain arte ere, lanaldiaz gain egiten duena. Bere arloak, lehen zituen eskuak eta langile berberak izango ditu. Beste atal bat da

Musika Eskolakoa. Ez zaigu iruditzen musikari eman nahi zaion garrantzia emanda, pertsona berriekin lortzen denik. Egia da, datorren urtean gehigarri honek esan nahi izango duela beste ikasle batzuei klase gehiago eman ahal izatea. Lehen esan dugun bezala iruditzen zaigu, udal barruan daudenei etekina atera behar zaiela duten jakinduriari tira eginez. Musika Eskolako zuzendaria eta biolineko irakaslearekin hori da pasatzen dena. Bertakoengan sinesten da eta bertakoei lan berezi bat ematen zaie, hain zuzen ere urte honetako musikaren antolaketa berezia eskaintzea.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak)
Aurkako botoak: 6 (Beasaingo EH BILDU)
Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, Euskara eta Kulturako koordinatzailearentzat eta Musika Eskolako zuzendari eta biolineko irakasleentzat dedikazio osagarriak ordaintzeko proposamena, gehiengo absolutuarekin onartu da.

5.- LANPOSTUAREN BALORAZIOAK. Diruzaina, obra eta mantenimendu langilea C2 (pertsonal laborala) eta komunikazio teknikaria.

Alkate jaunak (EAJ-PNV) proposamenaren berri eman du, hau da:

DIRUZAINA (funtzionarioa):

- Lanpostuaren maila: A1.
- Soldata: Ordainsari Orokorren Maila: 45.745,14 €urtean (Antolakuntza Teknikari lanpostuaren parekoa)
- Destino Osagarriaren Maila: 24

OBRA ETA MANTENIMENDU LANGILEA (pertsonal laborala):

- Lanpostuaren maila: C2.
- Soldata: 2. mailako ofizialak duen bedina: 28.688,08 € gordinak urteko, 2016. ekitaldirako, gehienezko lau urtetako atzera eraginarekin, baina horietatik kendu egin beharko dira egun lanpostu hau betetzen duen, karlos Bege Aliende jaunak, obra eta mantenimenduko taldearen arduradunari ordezkapena egindako eta ordaindutako epealdiak.

KOMUNIKAZIO TEKNIKARIA (behin-behineko pertsonala):

- Lanpostuaren maila: A1.

- Soldata: Ordainsari Orokorren Maila: 41.878,30 €urtean (Euskara eta Kultura Koordinatzailea lanpostuaren parekoa).
- Destino Osagarriaren Maila: 22

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)
 Aurkako botoak: 0
 Abstentzioak: 6 (Beasaingo EH BILDU)

Horren ondorioz, diruzain, obra eta mantenimendu eta komunikazio teknikari, lanpostuen balorazioari buruzko proposamena, gehiengo absolutuarekin onartu da.

6.- HOBARIA: Andramendi Ikastolak eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zergan eskatutako hobaria.

Aho batez ondorengo proposamena onartu da:

“Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga erregulatzen duen Udal Ordenantzak ondorengo hobaria jasotzen du:

%95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak eta obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean, etxebizitza babestuak barne, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik. Izendapena eta hobariaren ehunekoa Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

Hazienda Batzordearen iritziz, goian aipatutako interes bereziko eta udal onurako zirkunstantzia sozial eta kulturalak betetzen dira eta beraz, Udalbatza Osoak ondorengo ERABAKI DU:

Beasaingo Andramendi Ikastolako lokala egokitzeko obrek sortzen duten Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergan %95eko hobaria onartzea.”

7.- UDALBATZARI KOMUNIKAZIOA: Egindako eragozpenaren aurka emandako Ebazpenari buruzko jakinarazpena.

Ezagutzera eman da, kontuhartzaileak emandako txostena:

“Txosten hau, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateratzailearen 218 artikulua xedatutakoaren agindupean igortzen da, honek

ezartzen baitu Udalbatzari helaraztearen beharra Toki Erakundearen Lehendakariak, egindako eragozpenen aurka emandako ebazpenen berri ematearen betebeharra.

Aipatutako xedapenak dioena betez ondorengoa adierazten da:

1.-2015eko abenduaren 3an Alkateak B15/01328 ebazpena eman duela, Construcciones Artzamendi, S.A.. enpresak aurkeztutako 349 zenbakidun fakturaren ordainketaren inguruan eta Jubilatuen Egoitza ondoztatzeko obrei buruzkoa. Ebazpena egindako eragozpenaren aurkakoa da, hain zuzen ere, egindako lanek 12.070,54 eurotan gainditzen dutenez esleipenaren kopurua eta legez ezarritako prozedura bete ez delako.

2.- Jakinarazpen horrek puntu independente bat osatu behar duela dagokion Osoko Bilkurako gai-zerrendan.

3.- Korporazioaren Lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango duela Osoko Bilkuran.”

8.- MOZIOA. EAJ-PNV eta Beasaingo EH BILDUK aurkeztutako mozioa presoek buruz.

Alkate jaunak ondorengo mozioa irakurri du:

“Euskal presoak gerturatzeko eskaera

Lierni Armendariz, Mikel Azurmendi eta Iban Apaolaza beasaindar presoak herritik batez beste 800 kilometroko distantziara dauden espetxeetan dauzkate. Behin eta berriz salatu izan dugu euskal presoek sakabanaketak suposatzen duen zigor gehigarria, kode penalak inon jasotzen ez duena eta presoek senideei zuzenean eragiten diena, batez ere modu gogorragoan haur eta adin txikiko seme-alabei, gurasoekin ahal den era naturalenean harremana izateko eskubidea urratuz.

Esan bezala espainiar legedian presoak bere ingurutik ahalik eta gertuen egon behar duela jasotzen den arren, urteak dira euskal presoak euren bizitokietatik ahalik eta urrunen egoteko politika ezartzen ari dela. Honela, Espainiako Gobernuak asmatutako neurriak, mendekua besterik ez du bilatzen.

Gizarte sektore guztietatik salatzen ari den politika honek senideak eta haurrak etengabeko arriskuan jartzen ditu, egun osoan bidaiak prestatzen, astero milaka kilometro eginez eta sekulako dirutza xahutzen. Politika honek inoiz zentzurik izan ez badu ere, azken urteetan bizi dugun giroan oraindik ere ulergaitzagoa egiten da.

Eskari honetan euskal preso beasaindarrak euren etxetik gertu dauden espetxeetara gerturatzeko eskaera eta aldarrikapena egiten da mozio honen bidez. Eta bide batez erabaki honen berri honako erakunde hauei eman:

- *Presondegietako erakundeak.*
- *Arartekoa (Haur eta nerabeentzako bulegoa).*
- *Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzako saila.*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko ondorengoa adierazi dute:

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Este es un debate reiterativo, donde los socialistas tenemos clara nuestra postura. Nosotros seguimos defendiendo que es necesario que los presos condenados o a la espera de juicio por delitos terroristas, rompan de manera personalizada, decididamente y de manera pública con ETA, asuman la legalidad penitenciaria para que así sea posible su reinserción y poder recuperarlos para la vida democrática, y también como hemos dicho en otras ocasiones, somos partidarios de una política penitenciaria consensuada, dinámica y flexible, basada en la reinserción, en el respeto a la legalidad y a los principios humanitarios que impregnan nuestra legislación. Seguimos defendiendo que hay un camino ya trazado que ha dado resultado, que es, la vía Nanclares. Ahora le podemos llamar vía Zaballa, nos da igual el nombre. Lo cierto es que permite que los presos puedan recorrer el camino para la reinserción, y ésta es nuestra posición. El futuro de los presos está, en primer lugar en manos de los presos, porque son ellos los que tienen que seguir tomando decisiones en el camino que hemos indicado, e insistiremos una vez más a Vds. y a sus a que les animen para que lo hagan. Si eso se hace será más rápido abordar la cuestión que Vds. nos han pedido. Por ese motivo nosotros nos abstendremos.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Espetxeetako politika aipatzen duzu, legeari errespetua...Nik usten dut mozio honek eskatzen duena hori dela, hain zuzen ere. Besterik ez. Hemen eskatzen dena da, legeak esaten duena, hau da, presoak beraien etxetik ahalik eta gertuen ekartzea eta batez ere eragin horrek beraiek espetxean egonagatik beraien ingurukoei dagokielako. Bestea da, pertsonalki beraiek hartu dezaketene bidea. Lehengo lelotik jarraitu edo bide berria ireki. Hemen gerturatze hori eskatzen dugu legeak dioen bezala. Ez da haratago joan behar. EAJeei ez zaigu iruditzen guztia batean sartzeak erraztuko duenik edo erraztu lezakeenik, Gauza bat da presoek zein bide hartzen duten eta bestea da, legea errespetatuz gerturatze politika ematen den edo ez. Mozio honetan esaten den bezala, are gehiago, gaur egun zorionez bizi dugun egoerarekin.”

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Si. Nosotros somos plenamente conscientes de que este es un tema muy sensible y que afecta principalmente a sus amigos y familiares. De cualquier modo nosotros nos retractamos.”

Koldo Agirre jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Guk Aitorrekin esan duenarekin erabat ados. Beste batzuetan ere horrelako mozioak ekarri izan dira eta nik uste dut alderdi batek baino gehiagok mozioa onartzea garrantzitsua dela. Lege hori lehenbailehen betetzea denon hobe beharrerako izango litzateke eta hori da eskatzen dena.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 15 (EAJ-PNV, Beasaingo EH BILDU)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 2 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Horren ondorioz, EAJ-PNV eta Beasaingo EH BILDUk aurkeztutako mozioa presoei buruzkoa, gehiengo absolutuarekin onartu da.

9.- ALKATEAREN EBAZPENAK. 2015-11-23tik 2015-12-29ra bitarte emandako Ebazpenak.

Ezagutzera eman da 2015-11-23tik 2015-12-29ra bitarte emandako Ebazpenen zerrenda.

10.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderetan ondorengo hauek aurkeztu dira:

ALKATEAREN BULEGOA

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Hemos sabido que se ha hecho una reforma en el despacho del Alcalde. Queremos saber el costo de dicha reforma, cuales han sido los criterios a seguir por el Alcalde para haber llevado a cabo la misma.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “La cuantía no la han pasado aún. El criterio es seguir con las mejoras de las dependencias municipales. En los presupuestos del año que viene también está previsto que la única área que queda en esta, que es la de Secretaría y economía. Se trata de ir terminando con las mejoras. En la anterior legislatura se hizo hasta lo que luego fue la sala de concejales y ahora se ha continuado. La cuantía aún no la tenemos, pero cuando la tengamos no hay ningún problema para presentarla.”

Santi Urdampilleta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Bueno, pero habrá algún presupuesto inicial o ¿le habéis tendido un cheque en blanco a la empresa que se encarga de la reforma?.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Se pretendía quitar parte de la mesa que existía porque pensaba que era más conveniente tener un mesa redonda anexa para reunirnos con la gente, y no estar unos frente a otros. Cuando empezamos a levantar parte de la mesa, el suelo estaba totalmente destrozado. Se ha cambiado el suelo, se ha pintado y se han puesto dos mesas. Tampoco se ha traído nada más. Es un despacho que se quedara ahí, es para todos. Servirá para que nos reunamos y nadie se llevará nada a casa.”

Aitor Larburu jaunak (Beasaingo EH BILDU): “Esaten duzu hurrengo urteko bulegoetan beste berrikuntza bat aurreikusiko dela. Aurtengoetan ez zegoen zure bulegoa egokitzea. Lo que si quiero decirte Santi, es que este es un recorrido que llevamos desde el principio de la legislatura. Tampoco estaba recogido en presupuestos subirse el sueldo como se lo han subido. Todavía no se ha explicado de qué partida se ha sacado o se ha quitado, para poder pagarse el sueldo de este año. Tampoco han explicado de dónde han sacado la partida para arreglarse el despacho. Tampoco sabemos cuál es la dedicación de los puestos que ha asumido el Alcalde en entes distintos del Ayuntamiento.

Azkenean esan dezakegu bi eredu ezberdinen aurrean gaudela. Gu sartu ginenean jaso genuen bulego bat, gutxi edo asko gustatu, zegoena zen eta hori ez zitzaigun bururatu berritzea edo ez dakit zein historietan sartzea. Guk soldatak jaitsi genituen, baina hemen ez da azalpenik eman soldataren igoerari, bulegoa berritzeari buruz edo non adostu den bulego hori berritzea. Berak esaten du ez dela berarentzat bakarrik, denontzat omen da. Auskalo nork irabazten dituen hurrengo hauteskundeak, baina berak bere kasa erabaki du bulego hori berritzea, soldatak igotzea etab. Rodillo hori horretan ere ikusten da. Nik bai esan nahiko nukeena da, argitze aldera, nik neronek Pleno honetan leporatu nizulako gezurretan zenbiltzala eta gaur ere berriro gezurra esan du Oriako Pasealekuko igogailua dela eta, inolako teknikorik ez duela esan igogailu hori egin ez daitekeenik. Nahi kontua da. Nahi izan ezkerro, igogailu hori epeengatik, martxan egongo zen edo behintzat obrak oso aurreratuta egongo ziren. Hiru lerrokada irakurriko ditut Aitorrek esandakoa teknikoan adierazpenei buruz: “Gipuzkoako Urak. Se informa desfavorablemente, sin perjuicio de lo anterior y en el hipotético caso de que el ascensor se lleve a cabo, la misma debería realizarse de forma que se ejecuten infraestructuras complementarias que posibiliten mantenimientos y reparaciones. Natur Gas. Sería necesario que la tubería atravesara la zona por el interior de una vaina de 200 mm. Iberdrola. Conforme con los siguientes condicionantes: arquetas a ambos lados del ascensor y no machacar las canalizaciones.”

Harritu egiten naiz. Zilegi da politikoki erabakitzea ez dela hori egitea nahi, baina behintzat ez gezurrik esan. Bertako bizilagunekin parte-hartze prozesua egin zen eta beraiek proposatu zuten hori egitea. Guri ez adarrik jo, batzordean eta Plenoan esanez hori egitea ez dela posible.

Bukatzeko nahiko nuke epe laburrean, mesedez, esatea nola egingo den 120.000 € horien gastua edo aurre-proiektua edo prozesua nola martxan jarriko den, zeintzuk parte hartuko duten, gu bakarrik, auzokide lehendakariak bakarrik...Jakin egin nahiko genuke prozesu berri hori nola egin behar den. Eskerrik asko.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Udaletxeko areto bat berritzeari edo hurrengoek berritzeari ez zaiola beste munduko garrantzirik eman behar. Prozesua atzetik datorrena da eta bide horretan jarraitzeko asmoa dago. Zorua, bi mahai jarri eta pintaketa bategatik horrelako hotsa ateratzeak, ba bueno...hori bada egiten dugun okerrera ez dago gaizki. Aipatu duzu zein den Alkateak duen dedikazioa Beasainditik kanpo ematen ditudan karguengatik. Beasaingo Udalari dagokiona da ordezkaritza beste erakunde batzuetan. Esan beharrik ez dago, hemen bertan onartzen baitira hainbat erakundetan zinegotziok parte hartzea, behar hori dugulako. Dedikazioa ba, bakoitzak ahal duena. Eguna bakoitzari ematen diona ematen dio eta...ahal den heinean ari gara erantzukizunez jokatzeko.

Igogailuarena ere aipatu duzu. Egia da bakoitzak bere baldintzak jartzen dituela. Oriako Pasealekuko igogailua dela eta ezezko txostena URAKek egiten du eta gainontzekoak baldintzak jartzen dituzte, baita URAKekoak ere, baina Udal teknikoak ere beste txosten bat egiten du eta berak ez du gomendatzen hori egitea. Berak erabili zituen hitzak oso gogorrak izan ziren. Guretzat asko errazagoa zen onartu, egin eta gero arte, baina horrek utziko lituzken morrontzak zeintzuk izango ziren aurreikusita, teknikoei kasu egin diegu. Ez da erabaki politikoa, behin baino gehiagotan esan dugu. Gure ustez arduraz jokatu behar dugu eta horretan ari gara. Ez bestela. Bizilagunei esan zitzaion 120.000 € horiek errespetatuko zirela. Administratzaileekin egin zen bilerak. Iruditzen zaigu aurreko legealdian hasitako prozesu bat dela eta guk errespetatuko ditugu 120.000 € horiek. Administratzaileekin, Porteria auzo elkarteak buru zutela bilerak egin genuen eta esan zitzaion beraiek pentsatzeko zertan nahi zuten diru hori gastatu eta ez baziren adostasun batera iristen eta parte-hartze prozesu bat aurrera eramanez behar bazen, gure erara eramango zela, hau da, parte-hartze batzordetik pasako genuke prozesu hori arautzeko. Badakit beraiek bilerak egin dituztela eta beraien proposamenaren zain gaude eta orduan esango dugu zertan gastatuko diren 120.000 € horiek.”

PLENOKO BILERAREN EGUNA

Garbiñe Zurutuza andreak (Beasaingo EH BILDU): "Irailean udaletxera etorri nintzen zurekin hitz egitea eta komentatzea gabonetako oporretan, urtarrilaren 8 arte Euskal Herritik kanpo egongo nintzela, urtero bezala familiarekin nindoalako. Hitzez esan zenidan kontutan izango zenuela nire eskaria eta errespetatuko zenuela urtarrilaren 8 arte plenorik ez egitea edo gabonetako oporren aurretik egitea. Gaur urtarrilak 7 da. Oporretan nengoela, aste honetan bertan jaso nuen plenoko deialdia eta ez zen nik eskatutako data errespetatzen eta e-maila jaso bezain laster, astelehenean bertan, goizeko 7,30etan e-maila bat bidali nizun, Beasaingo EH BILDUren izenean plenoaren data aldatzeko eskatuz eta bi egun atzeratzeko, hau da, hurrengo astelehenera. Nire eskariari ezezkoa erantzun zenion. Kontutan izanda, aurrekontuetako plenoa urteko plenorik garrantzitsuena dela, gu zinegotziok gaudela herritarrek horrela aukeratu gaituztelako, beraien ordezkari garela eta herritarrei zor diegun errespetua, pleno honetan egin beharra nuela garbi nuen. Itzulerako hegaldia aurreratzen saiatu nintzen, baina ez nuen lortu berandu zen, Bilete berri bat erosi behar izan nuen, bi opor egun galdu, dirutza bat ordaindu ostean eta gaur hemen nago.

Hemen gauden guztiok ondo dakigun bezala oso zaila da lana, familia eta zinegotzi kargua bateratzea. Beraz, batzorde zein plenoak deitzerako garaian, begirune pixka batekin jokatzeko besterik ez dugu eskatzen, guk aurreko legegintzaldian zuekiko eduki dugun begirune berbera. Borondate kuestioa da. Ez da borondate politikoa. Borondatea besterik gabe. Guk ere arduraz eta erantzukizunaz jokatu nahi dugu herritarrekiko."

Alkate jaunak (EAJ-PNV): "Gu irailean hasi ginen aurrekontu errondarekin alderdi ezberdineko ordezkariekin, baita udal sail bakoitzeko teknikoekin aurrekontuak 2015eko urtean onartu nahi genituelako. Hainbat bilera eman dira eta gure edo beste batzuen gabeziengatik, azkeneko minutura arte, hau da, aukera genuen eta nik horrela erantzun nizun postaz, 22an aukera genuela aurrekontua onartzeko. Azkeneko momentu arte ekarpenak jaso ez genituenez, dokumentazioa ezin izan genuen prestatu nahi genuen moduan eta nik proposatu nuen, momentu hartan hortaz ahaztuta, 29an egitekoa gaur burutzen ari garen Osoko Bilkura hau. 29an EH BILDUko bozeramaileak esan zien jendea oporretan zegoela eta astebete atzeratzeko eskatu zidan, astebete inora ez zihoalako. Nik egia esan 2015ean onartu nahi nituen. 4ean edo 5ean egin nahi zen, baina beste norbait oporretan zegoen eta azkenik 7an esan zen egingo zela eta horrela adostu genuen Koldok eta biok. Ez da borondate txarrik izan. Saiakera beti egiten da eta ez ditugu bakarrik opor garaiak aintzakotzat hartu behar. Bertako langileak ere atzeratze honek oporrik gabe utzi ditu, beste batzuek opor gutxiago izan badituzue ere eta zenbaitek gaurko egunera ekartze-hutsak, etxean beste morrontza batzuk sortu dituzte. Dena ez da opor inguruan, gauza asko aintzakotzat hartu behar dira eta ez da beti asmatzen. Nik inongo lotsarik gabe barkazioa eskatzen dizut, gaizki jokatu badugu, baina zuk

esan duzun bezala zaila da denekin asmatzea eta ahalik eta gauza gehienak kontuan hartuta burutu da pleno hau.”

Garbiñe Zurutuza andreak (Beasaingo EH BILDU): “Sentitzen dut baina bakarmenak ez dit balio.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Urte berri-on. Positibo positibo.”

Eta tratatzeko besterik ezean, bileran arratsaldeko zortzietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.